

Dirua, ingurumena eta sakela laguntzeko

Merkatuan badira ohi baino gutxiago kutsatzen duten autoak, etxean energia gutxiago gastaraziko diguten sistemak edo gutxi kontsumitzen duten etxetresna elektrikoak; informazio eta pazientzia pixka batekin, diru puska bat aurreztu ahal izango dugu

Ingurumena eta etxeko ekonomia. Biak dira zaindu beharrekoak, eta, ahal dela, aldi berean egitekoa da hori. Eguzki plakak, aire girotuko sistema ekologikoak, galdara eraginkorrak, isolatzaile termikoak, bi kristaleko leihoak edo energia gutxiagorekin dabilzan etxetresna elektrikoak... era horretako hainbat tresna jar ditzake gutako bakoitzak etxean, eta orain, zorionez, diru laguntzak ere eskuratu ditzakegu horregatik. Eta ez erosteta txikiak egiteagatik soilik; auto hibrido bat erosten dugunean, edo karbono dioxido (CO₂) isuriak ahalik eta gehien murrizten dituen ohiko auto bat, gure aletxoan jartzen ari gara klima aldaketaren eragin kaltegarriak saihesteko, eta, ondorioz, diruz lagunduko gaituzte.

Zerbait lortzeko, ordea, pazientzia behar dugu beste ezer baino gehiago. Ez da batere erraza informazio egokia aurkitzea, hainbat erakunde ematen baitituzte gisa horretako laguntzak (erakunde zentralek, autonomikoei eta udalen batzuek ere bai), eta bakoitzak jartzen ditu bere baldintzak, kopuruak eta epeak. Horregatik, laguntza eskatzea erabaki badugu, lehenbailehen egin behar dugu, diru laguntza batzuek epe mugatua izaten baitute.

Diru laguntza publiko nagusiak

Ibilgailu hibridoak, elektrikoak eta gutxi kutsatzen dutenak

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE), Espainiako Industria Ministerioaren menpe dagoen erakundeak, 500 eurotik 6.000 eurora bitarteko laguntza ematen du

ibilgailu hibridoak edo elektrikoak erosteagatik. Autonomia erkidego bakoitzak zehazten du zenbatekoa izango den diru laguntza.

Erkidego batetik bestera alde handi samarrak aurki daitezke laguntza horien inguruan: guztiek ez dute kopuru bera ematen; ez dituzte epe berdinetan ematen; batzuetan atzeraeragina izaten du laguntzak, eta besteetan ez; batzuek ibilgailu mota batzuei ematen diete, eta besteek ez (Euskal Autonomia Erkidegoan eta Valentziako Erkidegoan, adibidez, motor elektrikoak ere ematen diete, eta berdin hidrogenozko ibilgailuei, petroliotik likidotutako gasekin dabilzanein, edo ibilgailu eraginkorragoak erostea gaitatik lehengoa aldatzen dutenei).

Auto saltokiak ere toki onak izaten dira galdetzeko, zenbait erkidegotan horien bidez eskatu behar izaten baitira laguntzak.

Beste laguntza mota bat ere eskaintzen du Espainiako Industria Ministerioak VIVE plana delakoaren bitartez; finantzaketa on batekin laguntzen ditu ibilgailua aldatu nahi dutenak, baina ez die diru laguntza zuzenik ematen, garai batean Prever planarekin egiten zuen bezala, adibidez. Plana egiten ari zirenean, baldintza batzuk jarri zituzten laguntza hori emateko, baina orain, planari lehen onarpena eman diotenean, zabaldu egin dituzte baldintza horiek. Ondorioz, laguntza jaso dezakete isuri kopuru batetik behera dabilzatan autoak (140 gCO₂/km) eta N1 motako ibilgailuek (160gCO₂/km; furgoneta erakoetan, 3.500 kilo artekoak). Marka guztietako ibilgailuek ekartzen dute datu horren berri ezaugarri tek-

nikoetan, eta, bestela, IDAE erakundearen web orrian begiratu dezakegu (www.idae.es/coches/). Laguntza hori jaso ahal izateko, ibilgailu zaharrak hamar urte eduki behar ditu, gutxienez, eta ibilgailu berriak, gehienez ere, 30.000 euro balio behar du.

Etxebizitza eraginkor eta ekologikoak

Etxean bertan energia berriztagarria sortzeko asmoa badugu laguntzak eska ditzakegu hainbat gauzatarako: eguzki plakak jarri, isolatzaile termikoak berri, galdara berria ekarri, kristal sistema hobea duten leihoak ipini edo instalazio elektriko zaharrak aldatu.

Erkidegotik erkidegora alde nabarmena da laguntzetan. Nafarroan, Gaztela eta Leonen, eta Extremaduran, adibidez, bultzada handi samarra eman diete energia berriztagarrietan oinarritzen diren sistemak. Horregatik, IDAEn ez ezik, erkidego bakoitzaren erakundeetan ere galdetu behar da. Eta nahi izanez gero, sektore horrekin harreman zuzena duten erakundeetan ere bai: Etxe Bioklimatikoa Elkartea, Energia Berriztagarrien Ekoizleen Elkartea, Industria Fotovoltaikoaren Elkartea edo Industria Termikoaren Eguzki Elkartea. Horrez gain, Kreditu Ofizialeko Institutuak baldintza oneko maileguak ematen ditu etxebizitzetan energia egokitzapenak egiteko.

A motako etxetresna elektrikoak

Edozein herritarren esku dago etxetresna zaharrak kendu, eta haien lekuan energia gutxien behar dutenak jartzea (A motakoak edo are hobekak, A+ motakoak). Etxetresna elektrikoak berritzeko plan horretan, 85 eurotik 125 eurora bitartean eskaintzen

dituzte erkidegotako energia erakundeek sukaldeko tresna handiak erostea (hozkailuak eta konbiak, izozkailuak, garbigailuak eta ontzi garbigailuak). Zenbait autonomia erkidegotan, aire girotuko sistementzat ere laguntzak emateko asmoa dute (Valentziar, adibidez). Beste zenbait erkidegotan, ordea, oraindik ez dute zehaztu nola eramango duten aurrera berritze plan hori (Andaluzia, Aragoi, Asturias, Balearrak, Kantabria, Gaztela eta Leon, Extremadura, Errioxa eta Murtzia).

Banku mailegu ekologikoak

Finantza erakunde batzuk hasiak dira maileguak ematen ingurumen baldintzak hobetuko dituzten produktu eta zerbitzuak finantzatzeko. Balearretako Sa Nostra Caixak, adibidez, "Mailegu Ekologikoa" eskaintzen du hainbat gastu ordaintzeko: ura eta energia aurrezteko balio duten instalazioak jartzeko, euri urari probetxu ateratzen dioten sistemak ezartzeko, etxetresna elektrikoak aldatzeko, iturri eta dutxa eraginkorrak ipintzeko.

Banco Guipuzcoano erakundeak "Energia Berriak Mailegua" eskaintzen dio eguzki plaka termikoak jarri nahi dituenari, eta Kutxak, berriz, interes tasak gutxitzen dizkio eta beherapen batzuk eskaintzen etxebizitza edo auto "berde" bat erosten duenari, baita etxean berrikuntza ekologikoak egin nahi dituenari ere.

Triodos erakundeak, finantzaketa formula bat baino gehiago dauzka ingurumenari lotutako ekimenak laguntzeko: hipoteka maileguak, epe luzerako mailegu pertsonalak, bermeak, kredituak eta diru laguntza aurreapenak. //

LAGUNTZA EKOLOGIKOAK KUDEATZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua (IDAE)
913 146 673 - 914 564 900
ciudadano@idae.es - www.idae.es
Kreditu Ofizialeko Institutua (ICO) (VIVE plana)
900 121 121 - 915 921 600 - ico@ico.es - www.ico.es

ANDALUZIA

Energiaren Andaluziako Agentzia
954 786 335
informacion.aae@juntadeandalucia.es
www.agenciaandaluzadelaenergia.es

ARAGOI

Aragoiko Gobernuko Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
976 714 111 - www.aragon.es

ASTURIAS

Asturiasko Printzerriko Garapen Ekonomikorako Institutua (IDEPA)
985 980 020 - idepa@idepa.es - www.idepa.es

BALEAR UHARTEAK

Balear uharteetako Gobernuko Merkataritza, Industria eta Energia Saila - Calle de la Lotja de Mar, 3 - 7012 Palma
971 176 565 - www.caib.es

CEUTA

956 512 201 - www.ceuta.es

ERRIOXA

Errioxako Gobernuko Industria, Berrikuntza eta Lan Saila
941 291 388 - www.larioja.org

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
944 035 600 - 944 035 624
ayudaseveidae@eve.es - www.eve.es

EXTREMADURA

Extremadurako Juntako Industria, Energia eta Ingurumen Saila - 924 002 342
extremambiente@juntaextremadura.net
www.extremambiente.es

GALIZIA

Galiziako Institutu Energetikoa (INEGA)
Rúa Ourense, nº6, A Rosaleta - 15701 Santiago de Compostela, A Coruña. 981 541 538
info@inega.es - www.inega.es

GAZTELA ETA LEON

Energiaren Eskualde Erakundea (EREN)
987 849 393 - www.eren.jcyl.es

GAZTELA-MANTXA

Gaztela-Mantxako Energia Agentzia (AGECAM)
Albaceteke egoitza - Tel. 967 550 484
Toledoko egoitza - 925 245 901 - www.agecam.es

KANARIAR UHARTEAK

Kanarietako Gobernuko Lan, Industria eta Merkataritza Saila - 928 452 075 - www.gobcan.es

KANTABRIA

Energia Kudeaketarako Kantabriako Elkartea (GENERCAN)
942 037 422 - info@genercan.es - www.genercan.es

KATALUNIA

Energiaren Kataluniako Institutua (Icaen)
936 220 500 - www.icaen.net

MADRIL

Industria, Energia eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusia (Madrilgo Erkidegoko Gobernuak) - 915 802 100
www.madrid.org

MELILLA

Ekonomia eta Administrazio gaiak Kudeatzeko Zuzendaritza Nagusia (Melillako Hiri Autonomoko Ingurumen Saila)
952 699 172 - www.melilla.es

MURTZIAKO ESQUALDEA

Energia Kudeatzeko Agentzia, Murtziako Eskualdekoa
968 223 831 - www.argem.es

NAFARROA

Nafarroako Foru Erkidegoko Berrikuntza, Enpresa eta Lan Saila
848 427 645 - www.cfn Navarra.es

VALENTZIAR ERKIDEGOA

Energiaren Valentziako Agentzia (AVEN)
963 427 900 - info_aven@gva.es - www.aven.es

